

4. Osakidetzako profesionalen sentsibilizazioa/prestakuntza

Gidaliburu honen atarikoan, Ernesto Sábatok esan du bilatzen duguna baino ez dugula aurkitzen, eta bihotzaren barru-barruan dagoen hori dela bilatzen duguna. EGMaren detekzio eta prebentzioaren arlora eramanda, lehenik arazoarekin sentsibilizatzeko premia dugula esan nahi du horrek, eta gero, arazoa benetan prebenitzeko beharrezkoak diren jakintza eta trebetasunak barneratu beharko genituzkeela.

Sentsibilizazioa lortzeko, hasteko, EGMaren arazoa ikusgai bihurtu behar dugu Osakidetzaren eta Osasun Sailaren barne-komunikazioko bideak baliatuta, datuekin, komunikatuekin, informazio-saioekin, saio klinikoekin, bibliografikoekin eta abarrekin... Aldi berean, EGMaren eta prebentziozko jardunenen erregistro eta formulario espezifikoak Osabiden txertatzea eta argi eta garbi adieraztea ere komeni da, profesionalak erabiltzen has daitezen.

Barneratzeko, **prestakuntza** da beharrezkoa, batik bat EGMaren detekzioan eta prebentzioan, baina baita EGMaren ondorio eta arrastoekin laguntzeko ere. Prestakuntza horrek gutxienez bi helburu nagusi izan behar ditu: jakintzak ikastea, eta prebentzio-teknika eraginkorretako trebetasun indibidual eta kolektiboak garatzea. Jakintzak antropologiarekin, etnografiarekin eta EGMaren jatorri sozio-kulturala ulertzearekin lotuta egongo dira; kulturartekotasunarekin; eta esparru etiko eta juridikoarekin.

Jakintzei dagokienez, “on-line” ikas daitezke eta, hartara, profesional askorengana irits daiteke; baina prebentziozko jardunak egiteko beharrezkoak diren trebetasunak modu presentzialean eskuratzea komeni da, eta diziplinarteko taldeak elkartuta saio berean.

Horretaz gain, prestakuntza hori –batik bat, presentziala– EGMaren arriskua duten familiekin harreman zuzenena duten profesionalak esanbidez eta lehentasunez zuzentzea garrantzitsua da. Zorionez, badakigu arriskuan dauden familia hauek non bizi diren, eta beraz, ez da hain zaila saio presentzial horietan lehentasunak markatzea.

Taula honetan, EAEn bizi diren eta arriskuan dauden emakume eta neskak bildu ditugu Erakunde Sanitario Integratuen (ESI) lurralde-eremuetan; hartara, prestakuntza jaso behar duten lehenengo profesionalak zeintzuk izango diren argi eta garbi ikusiko da. III. eranskinean banaketa hori bera duen beste taula bat ikus daiteke, udalerraren arabera banakatuta.

EGMa egiten duten herrialdeetatik etorritako emakumeen kopurua, ESlaren arabera

ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUAK	EMAKUMEEN ZBK.
ARABAKO ESI	917
BILBAO-BASURTO ESI	880
BARRUALDE-GALDAKAO ESI	560
BARAKALDO-SESTAO ESI	220
DONOSTIALDEA ESI	140
EZKERALDEA-ENKARTERRI-CRUCES ESI	98
BIDASOAKO ESI	93
DEBABARRENEKO ESI	57
URIBE ESI	33
GOIERRI-UROLA GARAICO ESI	25
TOLOSALDEA ESI	22
ARABAKO ERRIOXA ESI	6
DEBAGOIENENKO ESI	5
GUZTIRA	3.056